


UEUren udazkeneko ikastaroen eskaintza

On-line, Eibar, Iruñea. 2016



Udako Euskal Unibertsitatea
www.ueu.eus



On-line eskaintza

- Euskal Herriko oroimen historikoa.
- Euskal Literaturaren irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan.
- Lurraldea ulertu eta aztertzeko beste modu bat. GIS librea eta Geoprozesamendua (QGIS).
- Ordenagailuak programatzen txiki-txikitatik.
- R software askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan.

Ikasgelako eskaintza

- Aurkezpenetan entrenamendu trinkoa. III. moduluaren jarraipena.
- Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia. Urtean zeharreko formazio teoriko-bibentziala.
- Galerak, heriotza eta dolua haurren hezkuntzan.
- Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak.
- Herrigintza feminisotik.
- Kulturak, hizkuntzak eta lurraldeak: kultur aniztasunaren begirada.
- Pedagogia sistemikoa eguneroko hezkuntza praktikan.
- Python programazio-lengoaia: ikasi praktikaren bidez.
- *Videogametik bideo-jokora*: bideo-jokoak euskarara ekartzen.

Euskal Herriko oroimen historikoa

Helburuak

- Historiaren beraren gertakari adierazgarrienak gogora ekartzea, giza eskubideen ikuspuntutik.
- Oroimen historikoaren inguruko mugimenduetara hurbildu eta horien ekarpenak zabaltzea.
- Gertuko oroimena berreskuratzea.
- Euskal Herriko oroimen historikoa nazioarteko prozesuen testuinguruan ulertzea.

Nori zuzendua

Gaian interesa duen orori.

Irakaslea

Eztizen Miranda Bernabe. Kazetaritzan lizentziatua. Ikertzaile doktoregaia. Oroimen Historikoaren eskuratzeko-lanetan dihardu.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 25 orduko ikastaroa.
- Datak: azaroaren 3tik abenduaren 1era.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen ordutegia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 175,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Euskal Literaturaren irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan

Helburuak

- Heziketa literarioaren funtzioak eta literaturaren didaktikaren joerak aztertzea.
- Literaturaren irakurketaren autonomian sakontzeko garatu diren proposamen didaktikoak ezagutzeko.
- Irakurzaletasuna garatzeko estrategiak eskaintzea.
- Komunikazio literarioa irakasteko prozesuak aztertzea.

Nori zuzendua

DBHko euskara-irakasleei eta LHko hirugarren zikloko tutoreei. Irakaslegaietara edota irakurketa literarioan trebatu nahi duenari.

Irakaslea

Iratxe Retolaza. Euskal Filologian lizentziatua. UPV/EHUko irakaslea. Amaia Serrano. Euskal Filologian lizentziatua. DBHko irakaslea. UEUko Literatura saileko sailburuak.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 25 orduko ikastaroa.
- Data: urriaren 17tik abenduaren 13ra.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen ordutegia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 175 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Lurraldea ulertu eta aztertzeko beste modu bat. GIS librea eta Geoprozesamendua (QGIS)

Helburuak

- Azterketa espazialen gaineko oinarri bat hartzea eta horiek ulertzea.
- Geoprozesamenduko ariketak egiten ikastea.
- Ariketa ezberdinen konbinazioarekin emaitzak lortzea.

Nori zuzendua

GISean oinarritzko ezagumenduak dituen edonori. Lagungarria ere QGISean ohituta egotea.

Irakaslea

Mikel Ayestaran Olano. Geodesia eta Kartografian goi-mailako ingeniaria. [Gaindegia](#), GIS teknikaria.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 20 orduko ikastaroa.
- Datak: irailaren 26tik urriaren 24ra.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen ordutegia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 140 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Ordenagailuak programatzen txiki-txikitatik

Helburuak

- Ordenagailuen programazioaren oinarriak ezagutzea.
- Pentsamolde konputazionalaren oinarriak ezagutzea.
- Ordenagailuen programazioa eta pentsamolde konputazionala norberaren ikasgai nola txerta daitezkeen hausnartzea.

Nori zuzendua

Lehen eta Bigarren hezkuntzako irakasleei.

Irakasleak

Eurne Larraza Mendiluze.
UEUko Informatika sailburua.
Ingeniaritza Informatikoan doktorea.
UPV/EHUko irakaslea Donostiako Informatika Fakultatean.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 20 orduko ikastaroa.
- Datak: urriaren 26tik azaroaren 23ra.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen ordutegia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 140,00 euro.
[Informazioa eta matrikula.](#)

R software askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan

Helburuak

- Oinarrizko kontzeptu estatistikoak maneiatzea.
- Ingurumen Zientzietan estatistika lantzeko R software askearen oinarrizko erabilera ikastea.
- Etorkizunerako R softwarearen ikasketa autodidakta estimulatzea.

Nori zuzendua

Natur Zientzietako alorretan tratamendu estatistikoak behar izaten dituen edonori zuzendua.
R softwarearen erabileran hasiberria denari zuzendua.

Irakasleak

Aitor Larrañaga Arrizabalaga.
Ekologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea Ekologia arloan.
UEUkidea.
Iñaki Odriozola Larrañaga. Biologian doktorea UPV/EHUn. UEUkidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 25 orduko ikastaroa.
- Datak: urriaren 1etik 29ra.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako lehenengo saioaren ordutegia: 9:30-17:00.
- Matrikula-prezioa: 175,00 euro.
[Informazioa eta matrikula.](#)

Aurkezpenetan entrenamendu trinkoa. III. moduluaren jarraipena

Helburuak

- Jendaurrean hiz egiteko teknika eraginkorrak ikasi eta praktikatzea.
- Garapen pertsonalaren eta profesionalaren hobekuntzan komunikazioaren prozesuaren garrantziaz eta eraginaz ohartzea.
- Partaideen komunikazio-gaitasun guztiak erabiltzea eta hobetzea.

Nori zuzendua

Aurkezpenetan entrenamendu trinkoa ikastaroa egin dutenei.

Irakaslea

Gotzon Carcar Muerza. Coach pertsonala eta enpresariala, Trainer's Training Masterra Programazio Neurolinguistikoa. UEUKidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 8 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
- Datak: azaroaren 12a.
- Ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-20:00.
- Matrikula-prezioa: 56,00 euro. [Informazioa eta matrikula](#)

Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia

Helburuak

- Haurren benetako beharretara egokitutako eskola baten nolakotasuna ezagutzea.
- Helduen formazio-prozesuan hausnarketa bibentzialak duen garrantziaz ohartaraztea.
- Ikastea bezain garrantzitsua da des-ikastearen prozesua.
- Eskola on batek ukan beharreko ezaugarriak jakitea.
- Haurrekin kalitatearekin egoteko eta aritzeko trebatzea.

Nori zuzendua

Irakasle, guraso, hezitzaile zein gaian interesa duen edonori zuzendua.

Irakaslea

Ane Ablanedo Larrion. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua. NUPEko eta UPPAn irakaslea. UEUKidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 32 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
- Datak: urriaren 8tik maiatzaren 27ra. Saioka matrikulatzeko aukera dago.
- Ordutegia: 9:30-13:30.
- Matrikula-prezioa: 179,20 euro. [Informazioa eta matrikula](#)

Galerak, heriotza eta dolua haurren hezkuntzan

Helburuak

- Haurra, galerak, heriotza eta doluaren inguruko hurbilketa teoriko-praktikoa eskaintzea, haurrekin heriotza baten inguruan zelan hitz egin jakiteko eta galeren ondorioz, haurrek esperimentatu ditzaketen emozio-egoerak ezagutu, ulertu, eta laguntzeko bideak aztertzeke.
- Dolu-prozesuan blokeatuta egon daitezkeen haurrak detektatzeko, arreta berezia eman behar zaien jokabideak ezagutzea.
- Bizitza eta heriotzaren pedagogiaren inguruko hausnarketa bultzatzea.

Nori zuzendua

Irakasleei, hezitzaileei, gurasoei...

Irakaslea

Ester Alvarez Uri. Psikologoa; psikoterapia alorrean eta irakaskuntza alorrean esperientziaduna.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 ordu.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
- Datak: azaroaren 19a eta 26a.
- Ordutegia: 10:00-14:30/16:30-18:00.
- Matrikula-prezioa: 84,00 euro. [Informazioa eta matrikula](#)

Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak

Helburuak

- Arreta, kontzentrazioa eta orainean bizitzeko gaitasuna lantzea.
- Norberaren izatearen mailak: gorputz, gogo, emozio eta egitearen arteko harremana kudeatzea.
- Zentzumenak landu eta trebatzea norberaren pertzepzioaren jabe izateko.
- Barne-lekukoa indartu eta lantzea.

Nori zuzendua

Norberaren arreta landu nahi duen orori, baita hurrekin edo gazteekin lan egiten duten horiei ere; beren lanean arreta piztea eta mantentzea beharrezko dutenei.

Irakaslea

Naiara Gorroño Viteri. Komunikazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogian Masterduna Bartzelonako Unibertsitatean. Yoga irakaslea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
- Datak: urriaren 15a eta 22a.
- Orduetgia: 10:00/14:00-15:30/17:30).
- Matrikula-prezioa: 84,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Herrigintza feminismotik

Helburuak

- Talde batean parte hartzeko baldintzak identifikatzea.
- Bakoitzaren parte-hartze politikoari berrikuspen kritikoa egitea.
- Militantzia feminismotik eraikitzeko irizpideak identifikatzea.
- Banaka zein kolektiboki hausnartzeko eta aritzeko tresnak lantzea.

Nori zuzendua

Herri-mugimenduetako partaideei.

Irakasleak

Marta Luxan Serrano. Joxemi Zumalabe Fundazioko kidea. UPV/EHUko irakaslea. Unai Txurruka Maiztegi. [Joxemi Zumalabe Fundazioko kidea.](#)

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: urriaren 21a eta 22a.
- Orduetgia: ostiralean (17:00-20:00), larunbatean (10:00-14:00/15:30-17:30)
- Matrikula-prezioa: 70,00 euro. [Informazioa eta matrikula](#)

Kulturak, hizkuntzak eta lurraldeak: kultur aniztasunaren begirada

Helburuak

- Migrazioen zergati, errealitate eta eraginaren inguruan hausnartzea.
- Aniztasun kulturalak era positiboan kudeatuta, gizartean duen balio onuragarriaz jabetzea.

Nori zuzendua

Interesa duen edonori.

Irakasleak

Samira Goddi Mendizabal. Kultur aniztasuneko teknikaria. Kultura arteko bitartekaria izana. Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziatua. Gizarte eta Kultura arteko Bitartekaritza Graduondoa eta Immigrazioa, Generoa eta Genero Indarkeria Masterra egiten.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: azaroaren 19a eta 26a.
- Orduetgia: 9:30-14:30.
- Matrikula-prezioa: 70,00 euro. [Informazioa eta matrikula](#)

Pedagogia sistemikoa eguneroko hezkuntza praktikan

Helburuak

- Teoria sistemikoaren nondik norakoak ezagutaraztea.
- Ariketa sistemikoen bidez nork bere burua hobeto ezagutzea.
- Pedagogia sistemikoaren alderdi esperientziala ezagutzea.
- Gatazkak konpontzeko tresnak ezagutu eta hezkuntza-eremuan aplikatzea.

Nori zuzendua

Beren hezkuntza-praktikaren eraldaketa zein barne-begirada lantzeko gogoia duten irakasle zein gurasoei zuzendua dago.

Irakaslea

Eider Gamboa Ruiz de Eguilaz. UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea, Pedagogian Lizentziatua eta AT, PNL, konstelazio familiarretan aditua.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 14 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza
- Datak: urriaren 15a eta 22a.
- Orduetgia: 10:00-14:00/15:30-18:30
- Matrikula-prezioa: 98,00 euro.
[Informazioa eta matrikula](#)

Python programazio-lengoaia: ikasi praktikaren bidez

Helburuak

- Pythonen sintaxia ezagutzea.
- Python erabiliz scriptak egiten ikastea.
- Pythonen liburutegiak bilatzen eta instalatzen ikastea.

Nori zuzendua

Programatzen dakien eta Python lengoaia ikasi nahi duen orori dago zuzenduta. Ez da beharrezkoa programatzaile aditua izatea, oinarrizko ezagutza izatea nahikoa da.

Irakaslea

Olatz Perez de Viñaspre. Informatikan ingeniaria da eta Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra egin zuen. Gaur egun IXA taldean ikertzaile-lanetan dabil eta doktorego-tesia egiten ari da. UEUKidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: azaroaren 5a eta 12a.
- Orduetgia: 9:30/14:30.
- Matrikula-prezioa: 70,00 euro.

[Informazioa eta matrikula](#)

Videogametik bideo-jokora: bideo-jokoak euskarara ekartzen

Helburuak

- Euskarazko bideo-jokoen merkatuaren berri izatea.
- Bideo-jokoak euskaratzeko tresnak eta bitartekoak eskaintzea.
- Bideo-jokoak euskaratzean sortzen diren arazo eta zailtasunen berri lortzea.
- Euskarazko bideo-jokoen erronkak aztertzea eta hausnartzea.

Nori zuzendua

Bideo-jokoetan eta orobat teknologian interesa dutenei, itzultzaileei...

Irakasleak

Gartxot Renteria Agirre. Beng electrical and electronic engineering diplomatua. Irakaslea. Julen Zaballa Garcia. Kazetaria. Euskal bideo-jokoetan aditua.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: azaroaren 8a, 15a eta 22a.
- Orduetgia: 17:00-20:30.
- Matrikula-prezioa: 70,00 euro.
[Informazioa eta matrikula](#)

Argibideak

Matrikulazioa

Irailaren 5ean irekiko da eta ikastaroa hasi baino astebete lehenago itxiko da.

Matrikulazioa UEUren webgunetik: www.ueu.eus

UEUren egoitzetan egin daiteke:

- Eibar,
- Bilbo,
- Iruñea.

Matrikula-prezioak

Matrikula-prezio murriztua izango dute:

- ikasle, langabe eta erretiratuek (% 10eko beherapena)
- UEUkideek (% 25eko beherapena).

Diru-laguntzak

Diru-laguntzak on-line ikastaroetan eta Ikastetxe Nagusiko ikastaroetan matrikulatzen diren gipuzkoarrentzat. Ikus argibideak [webgunean](#).

Hainbat udalek beren herritarrei diru-laguntzak ematen dizkiete. Ikusi zerrenda gure [webgunean](#) eta galdetu zure udalean.

Ikastaro homologatuak

Ikastaroen homologaziorako eskaera egin dugu Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan. Erantzuna jasotakoan webgunean jakinaraziko dugu.

Argibideak

UEU - Udako Euskal Unibertsitatea
Isasi-Markeskoa Jauretzea
Eibar
tfnoa: 943 82 14 26
markeskoa@ueu.eus
Baratzeetako zeharkalea, 2.
Iruñea
tfnoa: 948 36 25 63
nafarroa@ueu.eus

www.ueu.eus

BABESLEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala